

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIK

Hezkuntza departamentua AppSkil proiektuan ari da Erresuma Batua, Belgika eta Italiarekin batera

Hezkuntzan erabiltzeko mugikorretarako aplikazioen garapena hobetzeko proiektua da AppSkil

Ostirala, 2017.eko azaroak 24

Nafarroako gobernuko Hezkuntza departamentuak AppSkil proiektuaren jardunaldietan parte hartu du gaur. Europa mailako proiektua da eta hezkuntza arloan mugikorretarako kalitatezko aplikazioak garatzea da du helburu; hezkuntza komunitatearen eskarien aurrean, lan arloko beharrei erantzuteko sortzeko, arloko industriarekin batera.

Hainbat herrialdeetako 14 bazkideren artean ari dira elkarlanean. Nafarroako Hezkuntza departamentuarekin batera dabilza Erresuma Batua (Coventry University Enterprises Ltd, Department for Employment and Learning, Naace, Sout West College, South Eastern Regional College eta AELP), Belgika (Conseil Regional de la Formation, Agoria eta Business Training), Italia (Associazione CIMEA, Associazione italiana per l'informatica e il Calcolo Automatico eta Consorzio Friuli Formazione) eta Espainia (Asociación de técnicos de informática eta Florida Centre de Formació, Coop. V). Aipatutako eragileez gainera, Hezkuntza eta Formazioa arautzen duten agintariak, IKT sektoreko ordezkariak eta zentro hezitzaile eta formatzaileek osatu dute aliantza.

Iruñean egindako jardunaldian Hezkuntza Zuzendari Orokor Roberto Perezek nazioarteko Erasmus+ proiektuetan eta sektorearen aliantzetan parte hartzeak duen garrantzia azpimarratu du, batez ere, zuzenean eragiten dutenean hezkuntza, abilitate eta industria sektorearekin lotutako enplegu mailan eta kalitatean.

Aplikazio erakargarriak

Mugikorretarako aplikazio erakargarri eta erabilerrazak sortzeko beharri erantzunez abiatu da AppSkil proiektua. Izan ere, badira kale egiten duten hainbat aplikazio, erabiltzailearentzat erraza den interfazea ez izateagatik. Hori dela eta, kasuistika hori aintzat hartuz, gehien eskatzen diren gaitasunak antzematen ari dira lanean, hezkuntza komunitatearen beharrei egoki erantzun ahal izateko. Horretarako, formazio curriculum eta online bidezko ikastaro masiboa garatzen ari dira parte-hartzaileak, mugikorretarako aplikazio-garatzzaileak formatzeko, hezkuntza sektorerako egokituta.